

Lasterka, arineketan, antxintxika,
Korrika

20. Korrika

Peli Lekuona Arruabarrena
pelilekuona@gmail.com

Aurkibidea:

Lasterka, arineketan, antxintxika, Korrika	0
1. Sarrera	2
2. Helburuak	2
2.1 Helburu nagusiak	2
2.2 Helburu zehatzak	2
3. Ideia nagusia	3
4. Sinopsia	3
4.1 Estiloa eta tonua	3
5. Zehaztasunak	3
5.1 Elkarrizketatuak	3
5.2 Bisitatuko diren txokoak	4
5.3 Egitura narratiboa	4
5.4 Errekurtso musikalak	4
5.5 Iraupena	5
5.6 Epemuga	5
5.7 Saioa	5
6. Kronograma	5

1. Sarrera

2017. urtean Korrikak 37 urte beteko ditu eta 20. Korrika ospatuko da. Euskal Herria zeharkatzen duen errelebo lasterketa ez da lasterketa soil bat. Izan ere, Korrikaren atzean AEK-ren jarduna, euskaltzaleen ilusioa eta euskararen aldeko batasuna jasotzen da. Euskararen festa ibiltaria antolatzeak lana eskatzen du eta 1980. urtetik gaur arte, hamaika lagun ibili dira Korrikaren aldeko jardunean. Era berean, gertaera anitzak, anekdotak eta istorio anitzak bizi izan dituen jazoera da Korrika. Horrexegatik, **20. Korrika hizpide bikaina da gaur arte gauzaturiko soinu eta ahotsak irratirako erreportaje batean jasotzeko eta ezagutarazteko.**

2. Helburuak

Korrikari buruzko erreportaje bat gauzatzea hainbat helbururen emaitza da. Helburu hauek bi mailetan bana daitezke: helburu nagusiak eta helburu zehatzak.

2.1 Helburu nagusiak

“Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajeak bi helburu nagusi dauzka:

- “Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajea gradu amaierako lan bat da. Hortaz, lau urteko ibilbide akademiko baten amaiera. Lau urtez kazetaritzaz ikasitakoa eta praktikan jarritakoaren isla izan beharko luke lan honek. Baita ere, kalitatezko lan bat gauzatzea ziklo akademiko hau amaitzeko modu bikaina da.
- Erreportajea 20. Korrika bertatik bertara jarraitzeko eta bestelako kontaketa bat egiteko aitzakia da. otxandiotik Iruñerako ibilbidea ardatz hartuta Korrikarekin erlazionatutako istorioak, anekdotak eta bizipenak txertatu nahi dira 11 eguneko ibilbidearen kontaktetan.

2.2 Helburu zehatzak

“Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajeak helburu zehatzak ere baditu:

- Erreportajea irratian igortzea.
- Kalitatezko erreportaje bat gauzatzea.
- Korrika eta bere 20 edizioak goratzea.
- Korrikaren hastapenak ezagutzera eman.
- Euskararen aldeko militantzia.

3. Ideia nagusia

“Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajea **20. Korrikaren jarraipena jasoko da, eta bertan, Korrikarekin erlazio aktiboa izan duten pertsonen testigantzak bateratuko dira.** Honetarako, otxandiotik iruñerako ibilbidearen aldizkako jarraipena egingo da, hiriburu, hiri handi eta une garrantzitsuetan egonez. Baita ere, martxoaren 30a baina lehenago korrikarekin erlazio aktiboa izan duten pertsonak elkarrizketatuko dira.

4. Sinopsia

20. Korrika Otxandion hasiko da eta lasterraldiaren hasierarekin batera “Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajea hasiko da. Erreportajeak bertatik bertara jarraituko du korrikaren hasiera ekitaldia eta honen berri emanez hasiko da. Korrika aurrera joan ahala elkarrizketaturiko pertsonen testigantzak ibilbidearen jarraipenarekin tartekatuko da. Ibilbideko puntuak eta elkarrizketatuak batzeko erreferentzia geografikoak baliatuko dira. Azkenik, amaiera ekitaldiaren berri emango da eta 20. Korrikako mezuaren idazlearekin hitz eginez amaituko da erreportajea.*

*Atal honen xehetasunak alda daitezke, hala ere, ideia nagusia azalduko da.

4.1 Estiloa eta tonua

Erreportajea **dinamikoa eta arina** izatea sustatu nahi da. Gradu amaierako lana izanik 8-10 minutuko iraupena eduki behar du. Egungo irratigintzan ez-ohikoa da halako iraupena duten piezak entzutea eta entzulearen erakargarritasuna sustatzeko, **derrigorrezkoak** dira dinamismoa, arintasuna eta freskotasuna. Ezaugarri hauek bermatzeko hainbat baldintza beteko dira:

- Korrikako abestien presentzia.
- Elkarrizketatuen korteak aukeratzeko lan sakona, aipu onenak aukeratzuz.
- Giroa eta lekukotasunen naturaltasuna.
- Ahots ezberdinen metaketa.
- Bertatik bertarako kontaketa. Erreportajearen haria Korrikaren ibilbidean zehar grabatuko da.

5. Zehaztasunak

“Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajeak zehaztasun hauek beteko ditu.

5.1 Elkarrizketatuak

Erreportajera gehituko diren testigantza nagusiak lortzeko hamaika elkarrizketa gauzatuko dira. Elkarrizketatuko diren pertsona guztiek **erlazio zuzena** dute edo izan dute beraien bizian zehar.

Elkarrizketatuak

- **Asier Amondo**, egungo Korrikako koordinatzailea.
- **Mertxe Mugika**, egungo AEK-ko koordinatzaile nagusia.
- **Urtza Errazti**, lehen bost Korriketako koordinatzailea.
- **Xabier Amuriza**, lehen Korrikako abestiaren egilea.

- **Juan Gorriti**, egungo testiguaren egilea.
- **Inotsi Mendiburu**, Remigio Mendibururen alaba.
- **Edurne Brouard**, Korrikako koordinatzaile ohia.
- **Andoni Seijo**, ibilbide taldeko partaidea.
- **Alizia Iribarren**, Nafarroako AEK.
- **20. Korrikako mezuaren egilea.**

5.2 Bisitatuko diren txokoak

Helburuetan azaltzen den moduan, 20. Korrikaren jarraipena gauzatuko da. Jarraipen horretan inguru hauek bisitatuko dira:

Bisitatu beharreko guneak

- **Otxandio**, martxoak 30
- **Gasteiz**, martxoak 30
- **Tutera**, apirilak 1
- **Hondarribia**, apirilak 4
- **Donostia**, apirilak 4
- **Lekeitio**, apirilak 5
- **Bilbo**, apirilak 6
- **Laudio**, apirilak 7
- **Oñati**, apirilak 8
- **Iruñea**, apirilak 9

5.3 Egitura narratiboa

Egitura narratiboa sinopsian (ikus [4. puntua](#)) oinarrituko da. Elkarrizketatuen testigantzen ordena elkarrizketak gauzatu ondoren eta Korrikaren ibilbidea aztertu ondoren zehaztuko da.

Zatia	Zatiaren deskribapena	Denbora

5.4 Errekurtso musikalak

Erreportajearen zehar, giro soinuaz gain, Korrikako abestien zatiak entzungo dira. Hauek dira entzun daitezkeen abestiak.

Abestiak

- "Korrika 1" (Xabier Amuriza).
- "Korrika 2" (Akelarre).
- "Korrika 3" (Egan).
- "Korrika 4" (Lontxo Aburuza).
- "Korrika 5" (Oskorri).
- "Gu AEK-koak gara" (Xanti eta Maider).
- "Korrika 7" (Irigoien Anaiak eta Mikel Erramuspe).
- "Aide Korrika" (Tapia eta Leturia).

- "Bizi ganoraz" (Maixa eta Ixiar, Alex Sardui, Kepa Junkera).
- "Euskal Herria Korrika" (Gozategi).
- "1 eta 1" (Joxe Ripiau).
- "Big Beñat" (Fermin Muguruza).
- "Gero bat gaurdanik" (Mikel Laboa eta Ruper Ordorika).
- "Ni ere bai" (Afrika Bibang).
- "Heldu" (Niko Etxart eta El Drogas).
- "Ongi etorri laguna" (Betagarri).
- "Pausoz pauso euskalakari" (Gose).
- "Bagoaz" (Esne Beltza).
- "Denok Korrikara!"
- "Zirkorrika" (Xabier Zabala eta Uxue Alberdi)

5.5 Iraupena

Erreportajeak **zortzi eta hamar minutu** arteko iraupena izango du. Puntu hau aldaezina da, gradu amaierako lanaren bete beharretako bat da eta.

5.6 Epemuga

"Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika" erreportajeak **apirilak 10**ean igortzeko prest egongo da. Honela, erreportajearen gaurkotasuna bizia izango da. Era berean, Korrikaren hurrengo eguna izatea aitzaki ona da 2017. urteko Korrika errepasatzeko eta sakontzeko.

5.7 Saioa

Erreportajearen ezaugarriak direla eta (ikus [4.1 puntua](#)), **magazin estiloko** saioetan barneratzeko egokia izango den erreportajea sortuko da.

6. Kronograma

Erreportajearen grabaketa otsailean hastea espero da eta apirilak 9 a arte luzatuko da. Epe honetan lehenbizi elkarrizketak gauzatuko dira eta 20. Korrikak dirauen bitartean lasterketaren jarraipena eta erreportajearen haria grabatuko da.

	Otsaila				Martxoa				Apirila			
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4
Elkarrizketak												
Jarraipena eta grabaketa												
Emisioa												